

## EBK USURBIL – Talde Sustatzailearen 3. bilera

(2022/05/31 – 18:00 – Udarregi erdiko aretoa)

### Parte hartzaileak:

**Goiener:** Alazne, Iban

**Udala:** Ibon eta Joxe Mari

**Herritarrak/elkarteak:** 13 herritar

### Sarrera:

(18.00 – 18:10)

Orain arte egindakoaren laburpena egin da.

Une honetan, helburuen definizioa zehazten ari gara, eta helburua lan taldeak osatzea litzateke, bakoitzak bere funtzionamendua zehazten joan dadin.

Momentuz lantaldeetan izena eman duten pertsonak honakoak dira:

- Komunikazioa eta komunitatea:
- Juridiko - administratiboa: 1
- Proiektuak: 2

Modu bateratuan saio orokorrak egiteaz gain (gai zehatzen inguruko formakuntzak eta hausnarketak emateko ditugu oraindik: gobernantza, proiektu motak, merkatuaren funtzionamendua, pobrezia energetikoari aurre egiteko aukerak...), helburua taldeak ere euren kasa biltzen eta funtzionamendua hartzen hastea litzateke.

### Hernaniko esperientzia ezagutzea

(18:10)

#### Testuingurua:

Fermin Arruabarrenak hartu du hitza. Egun, Ingutek Koop Elk. Txikiko langile eta Hernaniko herritarra da.

Hernani burujaberen barruan, Energiaren gaiari ere heldu nahi izan zen Hernanitik, eta horren eraginez abiatu zen Hernaniko Enherkom EBK-ren eraketa prozesua.

#### Prozesua:

Lehenik eta behin, parte hartzaileen idearioa bateratu zen. Horretarako, "EBK bat zertarako?" Galderari erantzuna eman nahi izan ziotelarik. Ariketa honen emaitza izan

zen Fundazio Gutun dokumentua eta helburu komun eta nagusi gisa, eredu energetikoaren aldaketa bat eragitea azpimarratu zen.

Gizarteak desazkunderanzko bidea hartu beharra duela aipatu da, eta Alemaniaren egungo egoera hartu da adibidetzat (*IFO Alemaniako Ekonomia institutuak, martxoko hazkundearen aurreikuspena murriztu zuela jakinarazi zuen ekainaren 15ean*).

2020an abiatu zen ekimen honetan, guztira 80 bat herritar, 15 enpresa, 8 gizarte eragile eta 5 hezkuntza eragile batu ziren lehen fase batean. Hala ere, prozesuaren garapena, talde murriztago batek gauzatu zuen, eta egun 16 bazkiderekin osatu dute Enherkom.

- 11 herritar kontsumitzaile
- 2 enpresa zerbitzu emaile
- 3 bazkide laguntzaile (udala, Ereñozuko Auzo udala eta enpresa bat).

Parte hartzaile hauen artean 3 lan-talde antolatu ziren proiektuak, komunikazioa eta arlo juridiko/administratiboak paraleloki landuaz.

#### **Erronka edo oztopoak:**

Erronka nagusia, komunitatea saretu eta sortzea izan zen.

Prozesuan aniztasun falta nagusitu zen: gehiengoa gizonezkoa eta adin heldukoa.

Kosta egiten da gizartearen errealitatea islatzea hasieratik.

- Nola egiten dugu deialdiak? Zein ordutan?
- Nor falta da?

Hasieran gauza asko daude egiteko, eta gainezka sentsazioa nagusitu daiteke. Baina norbaitek ekin behar dio, beste norbaitek egin beharko du bestela.

Erronkari nola eta zeinen artean heldu erabaki behar da.

#### **Proiektuak:**

- Autokontsumo partekatua: 100kW inguruko instalazioa identifikatu da udal eraikin batean (Zubipe Futbol zelaiko estalkian). 500m-an, 100 hornidura inguru biltzeko asmoa dago (Etxebizitza sozialak, pertsona fisikoak, eta pertsona juridikoak kontuan hartuta). Diru laguntzak eskatuak daude, proiektua idatzi da eta udalarekin teiltuaren lagapena gauzatzear dago. Laster erabakiko dute zein instalatzailek gauzatuko duen (EBKren irizpide propioetan oinarrituta).
- Aholkularitza energetikoa: efizientzia eta kontsumo ohiturak hobetzearen inguruko zerbitzu bat diseinatzen ari da. EBK-k beharra duenari aholkularitza emango lioke, erabakitzen diren baldintzak oinarri hartuz (kostua, kooperatibarekiko lotura...).

- Pobrezia energetikoa: gizarte zerbitzuekin elkarlanean, Hernaniko egoera ezagutu nahi da. Pobrezia pairatzen dituztenak identifikatu ostean, egoera hauek arintzeko eta ahal den heinean, pertsona eta familia horiei egoera horretatik irteteko laguntza eskaini nahi da. Udalak berak, eskaera zuzena egin dio eratu den EBKri behar hau asetzeko helburuarekin. Formakuntza eta ahalduntzearen bidez, pertsona hauei beharrezko tresnak eman eta ingurukoei laguntzeko aukera emanaz

\* Honekin lotuta, [Powerpoor](#) Europar proiektuak eskaini ditzakeen **aukerak aztertzen ari da Goiener**. Formakuntzak batzuk eskaini nahi dira irailean.

- Kooperatiba garatzen jarraitzea: kooperatibaren funtzionamendua hobetu eta sendotzeko bideak topatzen ari dira. Kooperatibara batzeko [izen-ematea eta bulegoa](#) zabalduta, eta uztailaren 7rako deialdi informatibo bat luzatu dute.

#### Bestelakoak:

Bazkietza eskuragarria izan zedin, kostu baxuak definitu dira (10€ bazkide kontsumitzaileentzat). Honela, parte-hartzeko, ez da baldintza ekonomikoaren araberako bazterketarik eragingo.

Hitzaldi saio batzuk antolatu ziren 2021ean:

[Iñaki Barcena](#) (EHUko Gizarte eta Politika Zientzietan doktorea eta Ekopol), apirilak 15ean.

Hernani Burujabe aurkezpena urriaren 1ean, energia eta EBK tarteko:

<https://burujabe.hernani.eus/eu/multimedia>

\*Aurreko saioan, **Irailean Usurbilen Energiaren Astea** egitea proposatu zen. Aste-klimako laguntza deialdia baliatu liteke (abuztuan zabaltzen da).

Bestelako zerbitzuak identifikatzen jarraitzen dute: elektrodomestikoen diagnostia eta aldaketa behar dutenen erosketa kolektiboen aukerak... etab.

Behin ipar-orratza jarrita, proiektuak proposatu eta erakusleihen moduan baliatu nahi izan dira, jende erakartzen hasteko.

**(Bileraren amaiera: 20:00)**



## HURRENGO SAIOA

Hurrengo bilera → Uztailak 7, OSTEGUNA, 18.00tan, POTTOENEAn

Ikusi *EBK Usurbil\_4.saioa* aurkezpenean, laburpena

- Fundazio gutuna onartzea eta honekin zer egin erabakitzea
- Lan-taldeen inguruko zalantzak argitu eta taldeak osatzen hastea --> Aktarekin batera bidaltzen dizuegun dokumentua irakurri

## ETXEKO LANAK

Bien bitartean, pentsatzen joateko:

**Fundazio gutunaren** zirriborroa:

Dokumentura sarbide esteka → [USURBILGO EBKren HELBURUAK ZEHAZTEN](#)

Errepasatu eta ekarpenak ekarri hurrengo saiora.

**Lan-taldeak:** EBK USURBIL - LANTALDEAK – ZEREGINAK. Pdf irakurri.

Norbere burua kokatzen hasi

Galderak eta zalantzak zerrendatu

Talde ezberdinetarako aproposa izan daitekeen jende identifikatzen hasi.

